

Bilbao'koa	9,00	ifko.	Iru Me.
Bilbao'antakua ...	11,25	"	"
Idaaki-itunmena ...	62,00	"	urtez
Atzerfjetakua ...	112,50	"	"

Gayak

Aberzalien zeregiñak

Basurdiak...



Ona emen Matiko'ko Batzoki'ko bazkidiak. Igandez batzaldia ziran, Agate Deuna'ren jaupea entzun eta Gorie-xola'ko Batzoldiak Matiko'kuari eskeñi dautson ikufina onesteko. Ortiz-Urkixo'taf Miren emakume zintzuarri, be, opalbena egin utsoen. Emakume onek meresi eban omen ori amalkatxu lan egin dauz, ba, geure aberjaren alde. Gorkoxola'n eta Matiko'n. Bilbao'n eta alde gustijetan geure aberjaren, gudari zintza dala erakutsi dau. Matiko'ko aberzallak jai ofegaz batzaldia dabez euren betiko edntzak. Uri andi onetako baztefiku aretan ihan dira aberzale zintzuarri eta dira. Zorijonak gustijai.

Idazli barri bat

"Cartas a Altzeta"

Aberzaleak auteskunde-burulan su ta gar sartuta ebiltzan garaian urten da argitara idazli au. Beaf dan baño garantzit aundiagoa emoten dautsegu deritxot politikako arloak; ez dautsegu emoten, ofatino, aibesteakoa jakintza-koad. Eta jakintza-salean lanean dihar-duenak ere, auteskunde-egunetan, beste eginbeafik lafienak aldatuta, auteskundeetako zeregin ofeitau bela-

tiatarako sartuta ikusten doguz bioz-mifhez beterik. Ofenbesteko garantzirik bai al-dauke auteskunde-arloak? Ezin geinke ukatu abertzaletasunari dagokion eginbe-afa dala gure efiaren agintebideetara agintari aberzaleak eroatea. Baña eginbeafik lengoena ta lafiena euzko-efiaren gogoa berbitzu ta erabafit-zea da ta ori jadtziteko bide bat legez artu bear doguz auteskundeak, ez auteskunde ondorenean, lo geldituko. Abertzalerik geinak, auteskunde-lanak amaitu ezkerre, euren eginbeaf gustiak beteta dankezala uste izatea kaltegar-fizkoa da, benetan.

Beraz, buruka-garai ofetan, abertzale-tasun-salean idazli barri bat sortu yakumean, bearbada, ez dautsego jaramon aundirik egin izango. Alan da guzti bere, ofatino, gure efiaren gogoa jakintza-galetara oitu beara dago.

Orain argitaratu yakun idaztiaren egilea Tejada-Sarabia'taf Sandali abertzale zintzoa da. Ez da euzkelduna; baña bai euzkeltzale sutsua. Ara zef dihotson "Altzeta"-ri bere idazkian: "Euzkeldunel begira jarita, idatzit dot-daz lefo oneik eta, biotz-biotzez dihot-zut, euzkeraz idatzit gura izango nekezazan". Ara zer dihotson argitaz: "Altzeta adizkide, garantzit aundiko bitxia daukaze euzkeldunak, zuen izkuntza".

Beraz, euzkelduna izan ez, gogoz eta biotzez euzkeltzale purukatuoa dogu Tejada-Sarabia. Bidera datoriokin guztietan erakusten dau euzkeraren-tzako maitasun sutsua ta nozmai emoten dautse bere laguntza. Giti al-da ori, gure izkuntza au, abertzalean artean be, baztertuta ikusten dogun gar-ral onetan?

Garantzit aundikoak dira Tejada jaun-kan bere idaztian darabilazan gaiak. Argi ta garbi azaltzen dauz, gañera, abertzale zintzo bateri dagokionez, Aberfari buruz kolokan darabilazan iri-tziak. Bere lagunak, abertzaleak, zuzen-bidean jafi gura dauz. Euzkadi'ren bizitza esiratu gura dau.

Orain eun urte arte, Euzkadi-eria oso ta osasuntsu bizi zan; baña jato-fiziko bizitza ori gainbera ondamedir-ri bidean asi zanean, sortu diran Ipa-fagife eta Arana-Goiri abertzaleak. Garai ofetan Euzkadi'ko aundizkiak er-egi ebezan lantegietara atzerfiko langi-leak eufez etofi ziran eta atzerfari ofeinak izan ziran gure etietako agin-tebideak be. Ikaragarfziko kalteak egin utsoezan Euzko-erari aundizki ofeik bakaldunaren aginte-garaian. Alde ba-tetik, Madrid'ko agintariak biltzen eus-kuezan bialduak eta ofteñak; beste al-deetik, gudariata, auteskunde-eria uste-lak, loikeriak, zikinkeriak... ofek danak ezereztu eban gure abendaren gogoa. Eun urteen luzeran ez eban guzta onik egin bakaldun-aginteak. Garai of-etan euzko-sentia erail gura izan eban, orduan erdeldun ziran eriak eta ordu-antxe euzkeltzale sutsu batek, euzke-rea atzerala yoyala ikusita, oiugin eban: "Euzkereak atzera oinkada bat egin-ala, ustelkeriak amaf oinkada aufera egiten dauz". Bien bitartean, agintari-ak euzkera ikastolefatik ostikoka ja-urti eban. Ikastola ofeitako ikasleak, euzkera beste izkuntzarik ez ekien umetxoal "El Quijote" emoten utsoen irakurgaitzat. Nortzeukandik etofi ya-luzan kalte izugari ofeik? España'ko katolikogandik. Ez al-da biozmingafia auxe?

Ofez gañera, España'ko agintariak, ez utsoen Eleizari berari ezetariko be-giramenik izan. Euren ofentzait artu gura izan ebezan Eleizaren gotzafnak eta jaupariak. Bien bitartean, abera-ten semek, euren guraso-etxeetatik urtenda, erbesteko ikastetxeetara joan beaf izaten eban ikaskuntzak egiten. Zelan itzultzen ziran etxera gazte of-elik? Zearo ustelduta, zearo gaitotu-ta. Euzkel-ikasbotarik bai al-eguan Euz-kadi'n garai ofetan? Bai zera! Sen-diko izkuntza bera erabiltea be zearo gebenduta euken gure umetxoak.

Katolikoan amesa izan da España'ko latefi-batasuna be. Baña ori lortuteko, zitalki jokatu izan dira beti; ofetarako, latefi-baruan bizi diran abenda guztien gogoa ito ta erail gura izan dabe. Gaztelefiaren gogoa jaso nai eban beste aberfendi guztien ganetik.

Nork itzegin lei España'n aberi-ba-tasunaretzaz? Aibeste abenda dago-zan latefian, aberi-batasunaretzaz itz-egitea burubakoreki aundia-da. Zetzaz itzeginen daben be ez dakie olakoak dihoezanak. Gaztelefiaren gogoa beste guztin ganetik jasotzea al-da batasun ori? España'ko bakaldun-aginte-garalan ikusi doguzanak dira bidebakoreki on-ebek guztiak.

Amalka bidef entzun dogu gizarte-aren oinafia sentia dala. Baña España'ko agintarian joera ikusita, esan geinke sendiaren biotza erailteko alegi-fik aundienak egiten dabezala, gure efiari beintzat.

Gizarteko auzia be Euzkadi'n ederto erabil geinke. Ez dago, ofetarako, era bafarik ekañ beafik. Uskurtzaren bafu-an ederto bete leiteke langileak gaur eskuratu gura dabezan eskubideak.

Eta, onelantxe aurrezten, dautseuz Tejada jaunak idazkera atseginhan arlo oneik guztiak. Idazti maitagarfia da. Argiro ikusi dauz abertzale zintzo onen begiak abertzaletasunari dagokio-zan arloak.

Au lako idazti begikoari ez dautsego ukatuko euren biotz-laguntza euzko-abertzaleak.

Bafensoro.

MANARIA

TXAUNBURUA JUAN YAKU. — Ibaña'taf Erupin gure txauburu aguf-garria bere, jayofeira juan yaku. Bernio'ko Eupeme Deuna'ren erfzadonako txauburu-lagun eginda be; ori da-la-ta, lengo igandez, amafetako meza nagosian, erfjari aguf egokija eginda gero, astelen afatsaldian alde egin eban bertatik.

Berau aldentziaz tamala aftu dogu, txauburu ona ta euzkeltzalia izan do-gu-ta. Berau txauburu izan dan do-gustijan, gure elekan, berbaldi ta abesti-gusti-gustijak (latifex egin bial di-ranak ezlik) euzkera ut-utsez egitea izan dira. Jaungoikua-uren guramena ori da izan be ta, Bere irakatsi dan-kan, bakotxari bere elian irakastia...

Ibaña'taf Erupin jaunari, ori onan egin izan daben on gustija Jaungo-ikuak esku-zabalez ordainduko dautso-lakuan gagoz... Guk beintzat, ori oya dautsegu biotzez, gauza gustijetan Jauna'ren laguntza...

EUZKEL-IXENAK. — Egubaztenez ugutzau eban, Martin Joseba euzkel-ixenbegikuak ezafirik, Oteitza'taf Mi-kel eta Gofit'af Jone senaf-emazte aberzalien lengo semetxua. Zorijo-nak guraso begikueri.

ERIJOTZA. — Astaftez il zan Lafea'taf Ixidore andera; 79 urtedun zala. Jauna'k zeruan euki begi. Sendijari atsekabian lagun gayakez.

GEXORIK. — Egun ontan gexorik aurkitzen dira Belia'taf Dorota ta So-laguren'daf Libe neskatua. Osasuna opa.

trebiaren gatzak "Libe" esantzerkijan txastauteko egari aundija dagota. Egafi au aseko dogula?

ZABALBIDE'N

Igazi dan igandian be, Zabalbide'ko pelotaleku begikuan, lau jokaldi joku-tu ziran.

Ona emen bigaeren mañako lenengo irurak: Portugalete-S. V. Barakaldo; Ermua-Erandio-Bekua, ta Afeta-Le-zama.

Iru jokaldi onefatik, S. V. Barakaldo, Erandio-Bekua ta Lezama garaitzale urten ziran. Portugalete, 17'an geratu zan; Ermua, 18'an. Eta Afeta, ostera, 10'an.

Afeta-Lezama'ren aftian jazo zana, amalka gabetako ipufetako jazokunak baño be ziniskatxagua begifandu yakun.

Aldi bateko "Txertudi trebiaren trebetasuna ta Alegria gastiarene bixitza-suna ta abaf, zoragarfziko gau-ames ospetsu baten ondorengo egun-ufatziak baterako amets-ostiko biurtu yakuzan. Zer jazo yakela, baña? Lezamañak, bijak ondo. Baña batez be, Danobettia, ondo be ondo. Aren aurf-aldeko sagu-jokera artezijak Atano III'garfenak egiteko be lotsari bakuak izan ziran. Zorijonak Danobettia.

Eta azkenenez, lenengo malakutena ikusi gendun. Lenegunen malakua zan-aren be, baña, jokaldi onetan joko-lege artezi askorik etzan ikusi.

Breude ondefatf aurfelarijak, beste aldi batzuetan pelotari trebiaren antza erakutsi izan be euskun be, igandian, aurfeko gabian lua galduriko baten antza erakutsi euskun. Pelotea ezehan ondo ikusten. Aldai atzelari txalotubak be, igazi dan igandian, bixitasun gitxi agertu eban.

Ori zala-ta, lunotafak, efex be efex irabazi utsoen, 11-22 lunotafen alde joku-amañu zan-eta.

Olango jokaldi otzak ikustia, ifiori be etxako atsegin izaten. Txapelketa-jokaldietan, bixitasuna, suba ta gaña, gustijak batera buruka-landan agertu bial dira. Bestelako burukea, ezta txapelketa-burukea, beste eratako jokaldi-jetan "tong" ixenez ezagutzen diran jokaldien antzekua baño.

Jokua gaitzia ezta lotsagafi. Egin al dana baño gitxiago egitia, bai.

Geure txapelketa-burukeak sutsuak izan bial dabe, euzko-gogua'ren txin-paifpafaan antzekuak.

Uribitarte'taf Ibon.

BASERRITARRAK

Kodañak, atxufak, aizkorak, arantzaun alambria, eta burdifezko sarefjak erosi gura ba-dozubez, Bilbao'ko, Ribera txaidoko 19'ra, "El Candaño", burdin-saloid ra jo-egixube.

Euzkotar Umientzat

Ogikiñaren lan kirkirrak

Arritokieta

"Andrea, —esan zion mutiltxoak, bere eskaria aunditxoak zalako edo arpe-gia goriturik— baldin kirkir bat emango bazidazuke, nik izango neukean poza!"

—Kirkir bat? —esan zion algara batean ogikiñak — zer egin beaf dek ba, kirkirak? Mutil gure labaldean dabitzan. danak ere emango nitxi-kirik pozik arapatu ezkerre.

—Ene andrea, ekatzi bat bakafa bada ere, zion mutiltxoak ogiaren gafe-tik bere eskutxoak baturik. Kirkir-ak zoriona eraman oi dutela esaten du-te ta, nik gure etxera bat eramaten ba'def, izan leike gure amak geyago negafik ez egitia.

Jagoba nere adizkideak ogikiñari be-giratu zion. Begi garbidun andre edef bat zan bera, eta mantalaren ertzak zerk malkoak legortzen asi zan. Begietatik bera negara asi bai zitzaion!

Nere lagun Jagoba ere, baldin so-fean mantalik izan ba'lu beste aibeste-egin beafean izango zan noski.

"Eta zergaitik egiten dik ba negaf zuen amak?" esan zion nere adizkide Jagobak alkarizketan sarturik.

"Zorak ditugulako, jauna—esan zion mutiltxoak. Aita il egin zaigu, eta amak gau ta egun lana egin afen ezin ditu danak ordaindu."

Jagoba nere lagunak artu zuan mutiltxoak, ta mutiltxoakin batera lauko ogia eta biak besarkatu zituan.

Bien bitartean ogikiña labaldera jaxki zan eta bere senafari lau kirkir afa-patu erazo ziozkan. Piper'poto batean sartu zituan eta zulo batzuek egin ar-nasa ondo artu zezaten eta beriala etofi zan gora.

Bere piper'potoa eskuetan zuala mutiltxoak eraman zuan poza!

"Ume gaxoa!" zioten biak batera. Ogikiñak artu zuan orduan bere zor-dunen ogiak apuntatzen zituan liburua, eta mutiltxoan amaren ofian zabaldu-rik, artu luma buztia eta afaya beltz luma bat egin zuan (zofa ere luzea bai zan!) eta bafenean "Ordaindua" idatzi zuan.

Ogikiña onetan ari zan bitartean, Ja-goba nere lagunak atera zituan bere patrikan zeramazkian diru danak (egun artian auz zuzen diru asko zuan bere-kin) eta ogikiñari eskatu zion, afeñ! bialdu zitzaala diru ayek, barkatutako

Euzko itzaldijak

Datofen egubedian, Joseba Deuna' jayan, Ereso'ko euzko-efitxuban, e-ko-mitin aberfeko ospetsu bat izan da.

Mitin ofen asi-orduba, afatekide laurak izango dira.

Eta bertan itz egingo daben lela-jak, onixek:

Alberdi'taf Miren andereñua, Mo-ga'taf Genar eta "Ogoñope".

Elefari ospetsubok, euren itzaldi af-ko-yak, geure euzkera mañe ederfian zenduko dabez. Eta ereñofaral, at-tzaletasuna zer dan, argi ta ge-atzalduko dautse.

Beraz, Joseba Deuna'ren jayan, E-ño ta ingurbetakuak be, euzko-m- ofetara eldu bial dira.

Eldu, ba, ta abertzalia ixatia zer ikasi.